

Eva Ferreira izango da UPV/EHUko Errektorea datozen lau urteetan

Emandako baliozko botoen herena baino gehiago lortu duenez (UPV/EHUko Estatutuen 179.4 artikulua), Eva Ferreira izango da datozen lau urteetan UPV/EHUko Errektorea.

Sufragio unibertsal haztatuaren bidez aukeratzeko da Errektorea. Errolda bost sektoretan banatzen da, eta ondorengo taulan ikus dezakezen moduan, pisu desberdina dauka sektore bakoitzak:

	% haztapena	2020		2016		2012	
		Eva Ferreira	Txuriak	Nekane Balluerka	Txuriak	Iñaki Goirizelaia	Txuriak
A arloa. IRI doktore iraunkorra	56,25%	37,24%	19,01%	39,31%	16,34%	32,98%	23,27%
B arloa. IRI ez doktore iraunkorra	7,50%	4,33%	3,17%	5,05%	2,45%	3,7%	3,8%
C arloa. Bestelako IRI	2,09%	1,26%	0,83%	1,51%	0,58%	1,45%	0,64%
D arloa. Ikaslegoa	22,08%	16,28%	5,8%	12,18%	9,9%	13,14%	8,94%
E arloa. AZP	12,08 %	7,12%	4,96	7,67%	4,41%	4,03%	8,05%
Guztira	100%	66,24%	33,76%	66,31%	33,69%	55,3%	44,7%

Jarraian, emaitzak bototan (haztapenik gabe):

	Errolda	2020		2016		2012	
		Eva Ferreira	Blancos	Nekane Balluerka	Txuriak	Iñaki Goirizelaia	Txuriak
A arloa. IRI doktore iraunkorra	2114	919	469	1150	471	941	664
B arloa. IRI ez doktore iraunkorra	179	52	38	311	118	117	120
C arloa. Bestelako IRI	3273	383	251	602	230	412	182
D arloa. Ikaslegoa	40819	612	213	1074	873	884	601
E arloa. AZP	1898	433	302	714	411	441	880
Guztira	48281	2399	1273	3678	2052	2795	2447

Aurreko taulan ikus daitekeenez, parte-hartzea sektorearen arabera ezberdina da eta izan da, eta horrela errepikatu da ezarritako hauteskunde modua dugutenetik.

AZP arloan parte hartzea txikia izan da, % 39koa; IRI doktore arloan ordea %66koa.

Boto guztiak hartuta, duela lau urte baino parte hartzea txikiagoa izan da.

Abenduaren 14an izango da Errektore berriaren behin-betiko izendapena. Behin hori gauzatuta, Steilasek bilera eskatuko du Errektore berriarekin; EHUko arlo ezberdinetan dauden premiazko gaien inguruan hitz egin eta geroago horiek jorratzeko.

Hauteskunde-kanpaina hautagaiari helarazi genion txostena bidaltzen dizut honekin batera.